



EMAKUMEARI ETA JOKOARI BURUZKO PANORAMIKA

Zifrei buruzko txostena

Txosten exekutiboa

2022



JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO





Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Datuak	6
2.1. Jokoaren maiztasuna, ohiturak eta balorazioa	7
2.2. Autodebekatuak	8
2.3. Langileak	10
2.4. «B» Makinak	12
3. Azken gogoetak	15

Taula eta irudien aurkibidea

Taulak

1. taula. Azken urtean jokatu duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019an eta 2022an (%)	7
2. taula. EAEko biztanleen jokoaren pertzepzioa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%)	8
3. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoan gehi estatukoan 2022	9
4. taula. Jokoarekin lotutako arazoak lantzen dituzten elkarteetako erabiltzaileak EAEn, 2022	10
5. taula. Jokoaren sektoreko enpresetako zuzendaritza-kargudunak	11
6. taula. Langile lan-kontratudunak azpisektorearen arabera, jokoaren sektoreko enpresetan	12
7. taula. «B» makinak, eduki bisualaren arabera	12

Irudiak

Jardunbide egokien adibidea	13
Jardunbide txarren adibidea	14



1.

Aurkezpena



Aurkezpena

Ausazko jokoei eta apustuei hainbat erakunderen interesa eta ezagutza piztu berri dute. Hauei buruzko informazioa eman duten azterlanak askotariko arlotakoak dira, hala nola ekonomia, psikologia edo soziologiakoak.

Jokoaren Euskal Behatokiak (JEB) ausazko jokoen eta apustuen arloari buruzko hainbat ikerketa egin ditu, EAEko gizartearen errealitatea zein den ezagutzeko eta horren berri emateko. Horietatik lehena, *Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak 2019*, IKEI Research & Consultancy erakundeak egin zuen. 2020tik aurrera, Behatokia Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Soziologia eta Gizarte Langintza Sailarekin hasi zen elkarlanean, eta *Jokalarien prebalentzia, ohiturak eta profilak Euskadin 2020* txostena izan zen horren lehen emaitza. Txosten honen helburua EAEko herritarrek ausazko jokoarekin zer harreman zuten erradiografiatzea zen, eta askotariko gaiak jorratu zituen, hala nola profilak, sozializazio prozesua edo jarduera horren ondorioz sortutako arazoak. 2021ean, aurretiko ikerketan lortutako datuen ondorioz, arretagunea biztanle heldu gazteenetan jarri beharra ikusi zen, eta *Gazteak eta jokoak Euskal Autonomia Erkidegoan 2021* txostena izan zen horren emaitza. 2022aren amaieran, *Jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta balorazioa 2022* txostenaren emaitzen aurrerapena aurkeztu zuten. Azterlan horri esker, IKEI 2019an egindako lanarekin luzetarako konparazioa egiteko aukera dago. Txosten horretan, EAEn bizi diren pertsonen ausazko jokoei buruz zer pertzepzio eta jarrera dituzten aztertzeaz gain, bestelako gaiak ere aztertutuzte, hala nola joko ohiturak edo Jaurlaritzak jokoaren arloan egindako kudeaketaren balorazioa.

JEBk, ikerketa soziologiko horiek egiteaz gain, EAEn horien errealitatearen gainean dagoen ezagutza zabaldu nahi izan du beste eremu batzuetatik, *Jokoaren panoramika ekonomiko-enpresariala* txostenean erakutsi bezala. Urteko txosten hori datuen bilaketa eta informazioa errazteko panel interaktiboa bilakatu da azkenean. 2022an, aipatu ditugun txostenekin jarraitzeaz gain, JEBk, UPV/EHUrekin batera, Jokoari eta generoari buruzko monografiko bat egin du. Bertan, jokoari buruzko askotariko datuak ageri dira genero ikuspegitik jorrotuta.

Adierazle horiek askotarikoak izanik, ikertzaile taldeak hainbat iturritatik atera ditu datuak; hori horrela, JEBren txostenak eta Joko eta Ikuskizun Sailaren memoriak erabiltzeaz gain, sektoreko enprekin eta errehabilitazioan dauden jokalarien elkarteekin ere jarri dira harremanetan.

Emakumeari eta jokoaren buruzko panoramika. Zifrei buruzko txostena 2022 azterlan monografikoak UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak egin du. Jonatan García Rabadán, Iraide Fernández Aragón eta Julia Shershneva irakasleek eta Aidée Baranda Ortiz eta Eva Jiménez Martín ikertzaileak osatzen dute sail hori.



Aurkezpena

Ondoren, azterlanaren ideia orokorrenak aurkeztuko ditugu, eta ausazko jokoei eta apustuei buruzko errealitate horien daturik bereizgarrienak eta adierazgarrienak emango ditugu.



2.

Datuak

Datuak

Aipatu bezala, kapitulu honetan ausazko jokoari eta apustuei dagozkien esferak aztertuta lortutako adierazle nagusiak aurkeztuko ditugu. Datu horien artean egongo dira, besteak beste, lantaldeak berak egindako ikerketa soziologikoetan lortutakoak, «B» makinaren azterketa bisualari dagozkionak, bai eta elkarteetako zein jokoaren sektoreko langileei buruzkoak ere.

2.1. Jokoaren maiztasuna, ohiturak eta balorazioa

Jokalarien kopuruak ehuneko ia 10 egin du gora 2019tik 2022ra bitartean. Gizonek gehiago jokatzen dute emakumeek baino, baina hori horrela izanik ere, hazkundea handiagoa izan da emakumeetan.

1. taula. Azken urtean jokatzen duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019an eta 2022an (%)

	2019	2022
Emakumeak	65,2	75,3
Gizonak	69,9	77,5
Guztira	67,3	76,3

Iturria: JEBren txostena 2019 eta 2022.

2019an, EAEko biztanleen % 2 aritzen ziren onlineko jokoetan; 3 urte geroago, jokalaria % 3,3 ziren. Hala ere, modalitate horretan jokatzen duten gizonen ehunekoa % 2,7tik % 5,2ra igo bada ere, jaitsi egin da, ordea, emakumeena (4 hamarren zehazki, % 1,5etik % 1,1era).

Egunero edo astero jokatzen duten gizonen ehunekoa handiagoa ere bada emakumeena baino; 2019an, % 19,3 eta % 14,7, hurrenez hurren. Eta 2022an, berriz, % 32,3 gizonetan, eta % 24,1 emakumeetan —aurrez aurreko jokoan—, eta % 1,4 eta % 0,3, hurrenez hurren, onlineko jokoari dagokionez. Horrenbestez, gizonak gehiago eta maizagotan jokatzen dute emakumeek baino, eta parte hartze nabariagoa dute, orobat, onlineko jokoetan.

EAEko gizarteak jokoari buruz duen balorazioari dagokionez, hobera egin du 2019tik 2022ra bitartean, pertsona gehiagok irizten baitiote jokoari «ona edo oso ona», eta gutxiagok, berriz, «txarra edo oso txarra». Gora egin du, era berean, jokoaren pertzepzio oso finkorik ez duten pertsonen ehunekoa; hau da, «ez ona, ezta txarra ere» dutenena (ikus 2. taula).

Gizonek eta emakumeek duten pertzepzioa alderatuz gero, berriz, kritikoagoak dira emakumeak gizonetako baino, % 49,3k irizten baitiote «txarra edo oso txarra» (% 44,4 gizonetan). Gizonek ehuneko handiagoan irizten diote jokoari «ona edo oso ona», eta inpartzialagoak ere badira (% 42,9 eta % 39,3, hurrenez hurren).

Datuak

2. taula. EAEko biztanleen jokoaren pertzepzioa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%)

	2019		2022	
	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona
Oso ona	0,2	—	0,3	0,2
Ona	5,1	4	10,8	12,3
Ez ona, ez txarra	23,9	26,2	39,3	42,9
Txarra	46,2	49,4	40	35,4
Oso txarra	20,8	17,3	9,3	9
ED/EE	3,8	3,1	0,3	0,2

Iturria: JEBren txostena 2019 eta 2022.

2.2. Autodebekatuak

Atal honetan, EAEko joko-galarazpenen erregistroaz arituko gara. Erregistro hau bertan izena emanda daudenek jokoan parte har ez dezaten sortu da. Ondorioz, pertsona horiek ezin dira sartu sarrera kontrolatzeko sistemak aplikatu behar dituzten joko-lokaletan, ez eta autonomia-erkidegoaren eskumeneko joko-webguneetan ere.

Estatuan, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiak —Kontsumo Ministerioaren mende— galarazpenen erregistro propioa kudeatzen du bere eskumeneko esparruko jokorako, hau da, estatu-esparruko online-jokorako.

Erregistro autonomikoa eta estatukoa kontuan hartuta (bi erregistroetan dauden pertsonak zenbatzen ditu, bikoiztu gabe), 2022ko urtarriletik abendura bitartean EAEen hala onlineko jokoetatik nola eskumen autonomikoko pribatuetatik beren burua baztertu duten pertsonen kopuruak % 36,32 egin du gora, 1.330etik 1.813ra (3. taula). Igoera hori handiagoa izan da gizonetan (% 47,8) emakumeetan baino (% 6).

2022ko zikloa itxi zuten 1.813 pertsona inskribatuetatik, % 78,5 gizonak ziren, eta % 21,5, emakumeak. Egitura horrek bere horretan dirau denboran zehar, eta finkatuta dago hiru lurralde historikoetako bi erregistroetan.

Konparazioa eginez gero, Bizkaian igo da gehien bi erregistroetan izena emanda dauden pertsonen kopurua (% 56); Araban, % 20, eta Gipuzkoan, azkenik, % 14. EAEen izandako gorakada handian eragina izan du, batez ere, gizonen kopurua % 79,6 handitu izanak, eta emakumeena, berriz, % 6,1.

Datuak

3. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoan gehi estatukoan 2022

		Erkidego erregistroa eta Estatukoa	% sexua	% biztanleria
Urtarrila	Gizonak	963	72,41	0,09
	Emakumeak	367	27,59	0,03
	Guztira	1330	100	0,06
Otsaila	Gizonak	968	72,08	0,09
	Emakumeak	375	27,92	0,03
	Guztira	1343	100	0,06
Martxoa	Gizonak	981	72,13	0,09
	Emakumeak	379	27,87	0,03
	Guztira	1360	100	0,06
Apirila	Gizonak	1260	76,09	0,12
	Emakumeak	396	23,91	0,04
	Guztira	1656	100	0,08
Maiatza	Gizonak	1255	76,29	0,12
	Emakumeak	390	23,71	0,03
	Guztira	1645	100	0,08
Ekaina	Gizonak	1247	76,46	0,12
	Emakumeak	384	23,54	0,03
	Guztira	1631	100	0,07
Uztaila	Gizonak	1257	76,83	0,12
	Emakumeak	379	23,17	0,03
	Guztira	1636	100	0,07
Abuztua	Gizonak	1278	76,80	0,12
	Emakumeak	386	23,20	0,03
	Guztira	1664	100	0,06
Iraila	Gizonak	1264	77,07	0,12
	Emakumeak	376	22,93	0,03
	Guztira	1640	100	0,07
Urria	Gizonak	1319	77,13	0,12
	Emakumeak	391	22,87	0,03
	Guztira	1710	100	0,08
Azaroa	Gizonak	1347	77,64	0,13
	Emakumeak	388	22,36	0,03
	Guztira	1735	100	0,08
Abendua	Gizonak	1424	78,54	0,13
	Emakumeak	389	21,46	0,03
	Guztira	1813	100	0,08
2022ko bilak. (%)	Gizonak		47,87	
	Emakumeak		5,99	
	Guztira		36,32	

Iturria: Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Datuak

Erkidegoari dagokionez, Bizkaian % 38,7 gehiago izan dira izena emandako pertsonak, eta antzeko datua egon da Araban (% 36,3); Gipuzkoakoa, berriz, urrutixeagoa dago: % 17,4. Gizonen kopuruaren hazkundera emakumeena baino nabarmen handiagoa izan da hiru kasuetan.

Azkenik, estatuko erregistroak hazkunde txikiagoa izan du (% 10,6). Horri dagokionez, Araban handitu da gehien izena emandako pertsonen kopurua (% 17,9), eta ondoren daude Gipuzkoa (% 13) eta Bizkaia (% 6,8). Azken Lurralde Historiko horretan, gutxiago izan dira izena emandako emakumeen kopurua (% 2). Hori horrela, gizonen erregistroa positiboa izan da, eta emakumeena baino handiagoa, hiru lurralde historikoetan.

2.3. Langileak

Hirugarren azpiatal honetan joko-arazoak dituzten pertsonen laguntzen dieten elkarteetako langileei buruzko datu nagusiak azalduko ditugu, bai eta jokoaren sektoreko enpresen osakerari buruzkoak ere.

Lehenik eta behin, 2022ko lehen seihilekoan elkarteei eskatutako datuen arabera, erabiltzaile guztien artean gizonenak nabarmentzen dira, guztizkoaren ia % 89 baitira, eta gailentzen dira, orobat, 31 eta 45 urte bitartekoak. Beraz, elkarteetara joaten diren gehienak adin-tarte horretako gizonak dira (% 35,46). Aitzitik, emakume gazteenak (18 eta 30 urte bitartekoak) dira elkarteetara gutxien joaten direnak (% 1,49).

4. taula. Jokoarekin lotutako arazoak lantzen dituzten elkarteetako erabiltzaileak EAEn, 2022

	18-30	%	31-45	%	Más de 46	%	Total	%
Emakumea	7	1,49	18	3,82	27	5,73	52	11,04
Gizona	139	29,51	167	35,46	113	23,99	419	88,96
Guztira	146	31,00	185	39,28	140	29,72	471	100

Iturria: gizarte erakundeak.

Erabiltzaileei buruzko datuez gain, langile lan-kontratudunen eta boluntarioen sarea ezagutu nahi izan dugu. Elkarteetan lan egiten duten pertsonen dagokionez, 44 langile daude guztira, eta oso antzeko kopuruan daude emakumeak eta gizonak (24 eta 20, hurrenez hurren). Kasu horretan, langile gehienak 46 urtetik gorakoak dira (% 61,36).

Elkartetan boluntarioak ere badaude, eta pazienteei laguntzen aritzen dira. Erantzun zuten elkarteetan 72 boluntario aritzen dira; horietatik % 73,6 gizonak dira, eta



Datuak

% 26,4 emakumeak dira. Langile lan-kontratudunetan bezala, gehienak 46 urtetik gorakoak izatea nabarmentzen da (% 50).

Bigarrenik, jokoaren sektoreko enpresetan, zuzendaritzako kargudunak eta gainerako langile lan-kontratudunak bereizi nahi izan ditugu. Jokoaren sektoreko enpresetako zuzendaritza-karguak betetzen dituzten pertsona guztietatik, % 45 Zuzendaritzan daude, eta % 55, berriz, zuzendaritza-batzordean. Lanpostu horietatik % 20,8 emakumeek betetzen dituzte, eta % 78,2, gizonak.

Azpitarragarriena da kasinoetan ez dagoela emakumerik, eta apustu-enpresetan zuzendaritza-batzordean bakarrik. Sektoreko gainerako enpresetan emakumeak daude zuzendaritza-karguetan, baina gizonak betetzen dituzte postu gehienak (5. taula).

5. taula. Jokoaren sektoreko enpresetako zuzendaritza-kargudunak

			Apustuak	Bingoak	Kasinoak	Sektoreko beste enpresa batzuk
Zuzendaritza-kargudunak	Lehendakaria	Emakumeak	—	36,4	—	21,5
		Gizonak	100	63,6	100	78,5
		Guztira	100	100	100	100
	Zuzendaritza-batzordea	Emakumeak	4,3	43,5	—	22,7
		Gizonak	95,7	56,5	100	77,3
		Guztira	100	100	100	100

Iturria: sektoreko enpresak.

Enpresetako langile lan-kontratudunetatik % 34,7 emakumeak dira, eta % 65,3, gizonak. Zuzendaritza-kargudunetan baino emakume gehiago egon arren, langile lan-kontratudunetan gizonenak dira nagusi.

Hala ere, badira salbuespen batzuk. Bingo-enpresen artean, jokoarekin eta administrazio eta kudeaketarekin zuzenean lotutako postuetan gehixeago dira emakumeak. Gauza bera gertatzen da kasinoetako eta sektoreko gainerako enpresetako ostalaritza-lanpostuekin; azken horretan, administrazio eta zerbitzuetako plantilla osatzen dutenak ere nabarmentzen dira.

Beraz, apustu-enpresetako langileen artean nagusitzen dira batez ere gizonenak, 6. taulan ikusten den bezala.

Datuak

6. taula. Langile lan-kontratudunak azpisektorearen arabera, jokoaren sektoreko enpresetan

		Apustuak	Bingoak	Kasinoak	Sektoreko beste enpresa batzuk
Jokoarekin lotutakoak	Emakumeak	24	54,8	48,8	19,9
	Gizonak	76	45,2	51,3	80,1
	Guztira	100	100	100	100
Ostalaritzarekin lotutakoak	Emakumeak	16,7	38,9	68,4	50,8
	Gizonak	83,3	61,1	31,6	49,2
	Guztira	100	100	100	100
Administrazio eta kudeaketarekin lotutakoak	Emakumeak	37,4	60	28,1	66,4
	Gizonak	62,6	40	71,9	33,6
	Guztira	100	100	100	100

Iturria: sektoreko enpresak.

2.4. «B» Makinak

Azkenik, EAEn homologatuta dauden «B» makina modeloen irudiak ikusiz egindako azterketaren emaitzak azalduko ditugu. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza eman ditu irudi horiek, eduki sexualizatua horietako zenbatek daukaten jakiteko.

Dauden 339 modeloetatik, % 30,7k ez dute emakumeen irudirik; % 57,5ek emakumea sexualizatzen duten irudiak dituzte, eta % 4,1ek sexualizatuta ez dauden emakumeak erakusten dituzte. Argazkien gainerako % 7,7ak ezin izan dira aztertu.

Emakume sexualizatuak dituzten makinaren ehunekoa % 63,7ra igotzen da makina aniztunei dagokienez. Hau da, joko bat baino gehiagokoak/pantailaniztunak direnetan.

7. taula. «B» makinak, eduki bisualaren arabera

	Makina sinpleak	Makina aniztunak	Guztira
Ez dago emakumerik	43,0	14,4	30,7
Emakume sexualizatuak daude	52,8	63,7	57,5
Emakumeak daude, baina ez daude sexualizatuta	3,1	5,5	4,1
Irakurtezina	1,0	16,4	7,7
Guztira	100	100	100

Iturria: guk egina.

JEBk jardunbide egokien eta jardunbide txarren adibideak eman nahi ditu. Hau da, irudien erabilera egokiari buruzko gomendioak eman nahi ditu, eduki jakin batzuk saihestu daitezzen.

2.

Jokoaren Euskal Behatokia 2022

Emakumeari eta jokoari buruzko panoramika



JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO


Datuak

Jardunbide egokien adibidea



Datuak

Jardunbide txarren adibidea





3.

Azken gogoetak



Azken gogoetak

Ausazko jokoek eta apustuek gero eta toki handiagoa dute EAEko gizartean. Horrela erakusten dute datuek, jokatu dutela aitortzen duten pertsonen ehunekoak gora egin baitu azken urteotan. Jokoa normalizatzeko prozesu baten emaitza da hori; jokoaren hedapenagatik ez ezik, bai eta gero eta onartuago daudelako ere.

Lehenik eta behin, oro har, gizonen jokabide bat zen, baina gizonen antzeko prebalentzia dute jada emakumeek. Onlineko eremuan, emakumeak ez daude oraindik gizonen prebalentzia-maila berean, eta hori baliteke izatea jokoaren balorazio txarragoa egiten dutelako.

Bigarrenik, 2022an, autodebekatuen erregistroetan izena emandako pertsonen kopuruak bilakaera du. Urte horretan % 36ko hazkundera izan da; EAEko biztanleria osoaren % 0,08 dira. Erregistroan gizonak dira % 78,5, eta emakumeak, % 21,5. Datu horiek iraukorrak dira denboran eta Lurralde Historikoen arabera. Halaber, Bizkaian igo da gehien izena emandako pertsonen kopurua, eta oso nabarmena izan da gizonen hazkundera (% 78).

Hirugarrenik, elkarteetara laguntza bila jotzen duten pertsonen datuek —aurrekoen ildo beretik— erakusten dute horietara jotzen dutenen % 89 gizonak direla, eta % 11, emakumeak. Puntu horrek askoz azterketa sakonagoa beharko luke, errealitate hori eragiten duten faktoreak erakutsi ahal izateko: desiragarritasun soziala, gizarte-laguntza, etab. Elkarte horietan lan egiten dutenak, berriz, emakumeak dira batik bat, baina gizonak dira nagusi boluntarioetan.

Elkarteen barne-egituretan ez bezala, sektoreko enpresetako langileetan nabarmen gehiago dira gizonezkoak, batez ere zuzendaritza-kargudunetan, lehendakaritzan eta zuzendaritza-batzordean. Zenbaitetan, hala nola kasinoetan eta apustu-enpresetan, ez dago emakumerik lehendakaritzan eta/edo zuzendaritza-batzordean.

Azkenik, EAEn homologatuta dauden «B» makinaren modeloen karatulak edo azalak ikusiz egindako azterketa aintzat hartuta, emakumeen irudi sexualizatua dago «B» makinaren erdien baino gehiagoren edukietan.



JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO